



Munduko Txapelketan lau domina eskualdekoentzat

TOLOSALDEA ▶ Urrezko domina
bat eta zilarrezko hiru erdietsi
dituzte pilotariek Mexikon

PILOTARIAK ▶ Mintegi, Urkizu,
Mendizabal, Odriozola, Lopetegi
eta Vinuesa aritu dira ▶ 2




Asier Mintegi, eskuinean, agurtzen, Munduko Pilota Txapelketan urrezko domina eskuratu ondoren. HITZA

VILLABONA ▶

100 lagun
historiari
buruzko
ikastaroan

Aritzak antolatuta,
Soraurenek ireki
zuen atzo zikloa ▶ 2

AMEZKETA ▶



IKER KARRERA

Perdido
mendan
marka ezarri
du Karrerak

Tontorra igo eta
Tarlara itzultzen ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Balorazio «positiboa» egin dute
Aldaban eta Iruran, San Miguel
jaien amaierarekin batera

Herenegun amaitu zituzten ekitaldiak bi herrietan;
«jende ugari eta giro ona» izan dira bietan protagonista ▶ 3

KILOMETROAK 06
inNeu! inYou!
**MILA
ESKER!!**

eta ez ahartu!...
NAFARROA OINEZ
urriaren 15ean BERAN

HAURTZARO
IKASTOLA

hitza

ANOETA ▶

Podologoaren bisita, bihar, Alkartasunan

Naiara Ortega podologoaren bisita jasoko dute bihar Alkartasuna biltokian, 14:45etik aurrera. Bestalde, gaur, 14:45etik aurrera ere, memoriari buruzko ikastaroaren bigarren saioa izango dute biltokiko kideek. Guztira 18 lagun daude izena emanda.

IRURA ▶

Ziri-enkaje ikastaroan izena emateko aukera

Irurako Udalak antolatzen dituen ikastaroetan izena emateko aukera dago oraindik. Esaterako, atzo hasi zen ziri-enkajeen ikastaroa, astelehenero izango da, 16:00etatik 18:00etara. Kulturuneko eskulanetarako gelan. Interesatuak bertaratzeko nahikoa dute izena emateko eta parte hartzeko. Joan aurretik informazioa jasotzeko Loli Caballero irakaslearekin harremanetan jarri daiteke 943 457 331 zenbakian.

ALEGIA ▶

Sexu heziketari buruzko hitzaldia gurasoentzat

Alegiko Aralar institutuak antolatutako sexu heziketaren inguruko hitzaldia izango da etzi. Irusta taldeak eman du ikastaroa eta gurasoei zuzendutakoa da. Institutuko liburutegian izango da, 18:00etatik aurrera.

ZUZENKETA ▶

Igandeko alean Igor Sasiain pultularia billabonatarra dela adierazten bazen ere, zizurkildarra da.

MUNDUKO PILOTA TXAPELKETA ▶

Urrezko bat eta hiru zilarrezko

Eskualdeko pilotari guztiek dominak lortu dituzte Munduko Txapelketan

IMANOL GARCIA

Eskualdeko pilotariak dominekin itzuliko dira Mexikon jokatu den Munduko Txapelketatik. Guztira urrezko domina bat eta hiru zilarrezko lortu dituzte. Hala ere, azken horietatik bi urre kolorekoak izateko gutxi falta izan zen.

Asier Mintegi lizartzarrak lortu du urrezko domina. Eskuz binaka aritu da Mintegi eta finala berak jokatu ez bazuen ere, parte-hartze garrantzitsua izan zuen. Finalerdian, Mundinorekin batera, erraz irabazi zieten Estatu Batuei (22-4) eta finalerako txartela lortu taldearentzat.

Maider Mendizabal anoetarrak eta Itxaso Urkizu berastegiarrak zilarrezkoarekin konformatu behar izan zuten. Mendizabalek jokatu zuen finala Maite Ruizekin batera. Fran-

tziako selekzioaren aurka galdu zuten (30-28), partida borrokatu batean. Hasieran markagailuan aurre hartu bazuten ere, aurkariek haiei komeni zitzaiezen jokoa egin zuten eta azkenean beraiek lortu zuten txapela.

Igor Odriozola zestolari anoetarrak zilarrezko lortu zuen ere. Finala ez zuen jokatu anoetarrak. Bere taldetik jokatu zuen bikoteak bi tanturengatik bakarrik galdu zuen Frantziako selekzioaren aurka (35-33). Odriozolak finalerdia jokatu zuen Etxanizekin batera Filipinakeko selekzioaren aurka.

Joxi Lopetegi eta David Vinuesa irurarrek xareko finala jokatu zuten baina Frantziako selekzioaren aurka ezin izan zuten ezer egin (40-18). Zilarrezko dominarekin konformatu behar izan zuten irurarrek ere.



Itxaso Urkizu, behean ezkerrean, eta Maider Mendizabal, behean, ezkerretik hasita laugarrena, podioan. HITZA



Igor Odriozola, ezkerretik hasita bigarrena, dominarekin. HITZA

VILLABONA ▶ HISTORIA



Soraurenak ireki du ikastaroa

I. Garcia ▶ Mikel Soraurenak eman zion atzo hasiera Aritza Kultur Taldeak antolatu duen *Euskaldunen sustraia eta memoria* ikastaroari. Guztira 100 lagun inguruk eman dute izena eta antolatzaileak gustura daude ikastaroak izan duen harre-
rarekin. I. GARCIA

hilberriak ▶

Joxemari Goñi Usandizaga

Bizitzak bere bidea eten du;
baina zure lanak etengabe darrai,
urak hodian bezala



Zumadi Eskolako ikasle, guraso eta irakasleak
AMEZKETAN, 2006ko urriaren 2an

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

SAN MIGUEL JAIK ▶

Aldabarrak eta irurarrak, aurtengo festekin «kontent»

Balantze ona egin dute aurtengo sanmielez gozatu dutenek: alde batetik, Irurako alkateak, eta bestetik Aldabako festetako antolatzaileak

NEREA URBIZU

Irurako eta Aldabako jaiak bukatu dira, eta herritarrak balantzea egiteko orduan «kontent» agertu dira. Irurako jaietaz hitz egiteko Marimi Ugalde alkatea izan da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN. Bestalde, Aldabako bizilagunak ere mintzatu dira eskualdeko egunkariarekin, pasa den asteburuan bi herrietan ikusitako giroaren berri emateko.

Irurako jaiak «oso oso onak» izan direla esan du alkateak; «beti ere nire ikuspuntutik, oraindik ez baitugu Udalaren aldetik baloraziorik elkarrekin egin». «Ni hizketan aritu naizen jendeak behintzat hori esan du, gustura ibili direla eta festak oso onak izan direla», Marimi Ugalderen arabera.

Emaitza «on» hau, «egitaraua oso anitza izan delako da, musika gustu guztietakoa, helduentzako jokuak, txikientzat ere bai... Jendeak batean ez bazen, bestean parte hartzen zuen eta hori herrikoek eskertzen dute».

Dena dela, Irurako festetako lehen larunbatean, irailaren 23an hain zuzen, pailazoen saioa ia bertan behera utzi behar izan zutela gogoan izan du, «euri jasa izugarria bota baitzuten bat batean: Pirritx eta Porrrotx aritu ziren kalean saioa egiten, baina utzi egin behar izan zuten». Hau izan da festa guztietan «okerren» joan dena. Dena dela, badute urtea bukatu aurretik berriro ere pailazok Irurara ekartzeko asmoa, egun hartan ilusioz betetako umeen aurpegi horiek berdin ikusteko. «Hasieran bero egi-



Irurako 80 urtetik goragoko 14 herritarrek landare bana jaso zuten, haiei egindako omenaldian. HITZA

ten zuen, eta ez zegoen euria iragarrita: orduan frontoian egiteko aukera ikusi bagenuen ere, ez zegoen denborarik, eta hala geratu ziren ume gaixoak. Gainera, herri askotatik etorri ziren pailazoak ikustera».

Igandean jaiak ofizialki bukatuta baldin baziren ere, jubilatuek ohi bezala, jokuen sari banaketa izan zuten. Aurtengoan, berrikuntza, herriko 80 urtetik gorakoei opari bat banantzea izan da, eta 14 lagun izan ziren landare eder bat jaso zutenak. «Omenaldi hau hemendik aurrera urtero egiteko asmoa dugu», gogoratu du Marimi Ugaldek. «Horrelako de- taleak asko eskertzen dituzte,



Aldabako patata tortilla lehiaketan hiru talde aritu ziren. NEREA LIZARTZA

JUBILATUEN JOKOAK ▶

Hauek izan dira Irurako jaietan, jubilatuen arteko jokoetan irabazleak.

Mus Txapelketa. Heladia Altuna eta Jose Galan.

Eskoba. Maritxu Saizar eta Maria Paz Armendariz.

Puntua. Asun Ipintza eta karmen.

Seiko jokua. Mari Martin eta Isabel Martin.

Tokan. Jesus Igartua mutiletan. Emakumeetan, Milagros Iturrioz.

Botean. Antonia Lazkano emakumeen artean. Juan Bustos gizonetan.

eta are gehiago espero ez dituztenean». Horretaz gain, dantzari txoek Agurra eskaini zieten.

Aldaban ere, pozik

Aldaban, ostiralean hasi eta igandera arte izan ziren jaiak. Ostiralean hamaiketako ederra izan zuten auzokideek Aldabako jatetxean. Dena dela, egunik jendetsuena, argi denez, larunbata izan zen: iluntze partean patata tortilla lehiaketa izan zen eta hiru taldetok hartu zuten parte: Asun Zubeldiak eta bere alaba Ainara Irazustak irabazi zuten aurtengoan.

Auzokideek bereziki azpimarratu dutena «zahagi ardoa izan da: jende asko bildu zen festa honetan, eta arrakasta izan zuen». Ume-jolasak ere izan ziren eta «han ere jende asko ibili zen».

Kupela taldearekin dantza egiteko gogoia zutenek izan zuten gerria mugitzeko aukera. «01:00ak arte izan zen parranda. Hala ere, 03:00ak arte izan zen jendea, etxera bueltatzeko gogorik gabe», gogoratzen dute aldabarrek. Kupelakoekin oso gustura izan ziren, eta dantza saioa eskaini aurretik bertotan aritu ziren. Larrañagak eta Agirrek aldabarrentzat hainbat bertso bota zituzten.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheko
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Fax: 943 65 09 44
e-maila: enia@inmoenia.com
www.inmoenia.com

Irura. Etxezarreta, 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera.
Leaburu bidean. 600 m2ko pabiloia alokairuan, bi solairuetan banatua, 2.500 m2ko zelaiarekin.
Anoeta. 3 logela, sukaldea, egongela eta gainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko moduan.
Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. Bista oso onekoa.
Berrobi. Estilo rustikoan

(aldizkarietan bezala!). 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela.
Amezketza, Gabiria, Hernialde, Ibarra. Hainbat etxe bifamiliarrak, adosatu eta eraikitako partzela.
Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin.
Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela, sukaldea, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.

Tolosa. Eraikuntza berriko hainbat etxebizitza. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.
Tolosa. Beotibar. 36 m2. Altua, 150.000 euro.
Tolosa. Alde Zaharra, 2 logela, sukaldea, egongela, eta bainugela. Hainbat berrikuntza. 168.285 euro.
Tolosa. Berazubi. Berritzeko aukera anitzak. Igogailu proiektua onartuta.
Tolosa. Siervas de Jesus. 3 logela, sukaldea, egongela, eta 2 bainugela.
Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza.

92 eta 97 m2. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederrak. Gutziz berrituak. Estreinatzeko. Garajeekin.
Tolosa. La Estrella. Oso egoera onean. Igogailu eta garajeekin.
Tolosa. Isaac Lopez Mendizabal, 4 logela. Igogailua. Garajea. Egoera ona.
Villabona. Kale Berria. Eraikuntza berrian pisu altua. 100 m2. Garaje itxiarekin.
Legorreta. Trastelekua salmentan. Bizikleta edo motorrentzat egokia.

FUTBOLA ▶

Banako berdinketa Tolosa eta Beasainen arteko norgehiagokan

Irabazteko aukerak izan arren, «emaitza justua» izan zela dio entrenatzaileak; hurrengo San Ignazio taldearen aurka



Tolosa CF eta Beasainen arteko norgehiagokaren une bat, larunbatean, Berazubín. NEREA LIZARTZA

IÑIGO TERRADILLOS

Beasain taldearen aurka jokatu zuen larunbatean Tolosa CFk eta banako markagailuarekin amaitu zen partida. Hori bai, etxeko taldeak irabazteko aukera izan zuen, baina azkenean berdinketarekin konformatu beharra izan zuen.

Gorka Etxeberria entrenatzaileak azaldutakoaren arabera, «lehenengo zatian oso ondo jokatu genuen, dominatu, eta aukera ugari sortuz». Hala, 15. minutuan jarri ziren aurretik tolosarrak. Orue izan zen baloia Beasaingoen atean sartu zuena. Bigarrena ere sartzeaz egon ziren, baina ez zen posible izan.

Bigarren zatian, Beasaingoek gehiagi estutu zuten, eta

TOLOSA CF ▶ 1

BEASAIN ▶ 1

Hasierako hamaikakoa. Apeztexea (atezaina); Martínez; Iban; Ekhi; Jon Txiki; Ibai Camio; Romero; Orue; Regillaga; Rincon; Gibelalde.

Aldaketak. Lacalle (Martinez); Balerdi (Romero); Goikoetxehandia (Iban).

Golak. 0-1: Oruek (15. minutuan); 1-1: Beasainek (70. minutuan).

«guk atzera egin genuen nahigabe, eta lehenengo zatian baino aukera gutxiago izan genituen». Partida amaitzeko 20 minutu geratzen zirenean Be-

saingoek berdinketaren gola egin zuten, eta norgehiagokaren amaierara arte ez zen aldaturko 1 eta lekoa.

Berdinketa «justua» izan zela dio Tolosako entrenatzaileak. «Partida osotasunean begiratzen badugu, emaitza justua dela esan behar». «Dena den, penarekin geratzen zara, lehenengo zatian aukera garbiak izan genituelako, eta ez genuelako aprobetxatzen jakin; horrelakoekin ezin da barkatu, eta gutxiago maila honetan».

Bestalde, «gustura» dago Etxeberria taldea egiten ari den lanarekin; «egunetik egunera hobetzen goaz, apal apal, pixkanaka puntuak batuz». Hurrengo partida, Gasteizen izango dute, San Ignazio taldearen aurka.

SASKIBALOIA ▶

Garaipena Tolosa Aralar-ek, lehen partidari

69 eta 54 irabazi zuten tolosarrek etxean, Getxoko Sotojeans taldearen aurka

ERREDAKZIOA

Interautonomika mailan, denboraldiko lehen partida jokatu zuen iragan larunbatean Tolosa Aralar saskibaloitaldeak. Usabalen jokatu zuen partida, eta hain zuten ere, Getxoko Sotojeans taldea izan zuen arerio. «Intentsitate handiko partida» izan zen, eta azkenean, puntuak etxean geratu ziren, 69 eta 54 bukatu baitzen norgehiagoka tolosarren alde.

Partidaren partzialak honakoak izan ziren: 20-15; 37-28; 58-45 eta 69-54. Beraz, Tolosa Aralar aurretik joan zen markagailuan partidaren zati handi batean. Ondorengo jokala-

riak aritu ziren: Tolosa Aralar taldeari dagokionez, Kike (7) Martia (4), Fernando (13), Harritz (15) eta Ionek (4) osatu zuten hasierako bostekoa; Goar (13), Unai (0), Alberto (0), Mikel Txiki (0), Iñigo (0), Joseba (0) eta Kaiet-ek (13) ere jokatu zuten. Sotojeans Getxo taldean, Illanes (4), Unibaso (12), Vela (20), S. Garcia (2) eta F. Garciak (0) osatu zuten hasierako bostekoa. Olabarri (2), Marmol (0), Zorrozueta (6), Arenas (0) eta Zarragak (8) ere jokatu zuten.

Bestalde, sailkapenari dagokionez, lehen garaipen honenkin, bigarren postuan dira tolosarrak Bidegintza Cespa taldearen atzetik.

FUTBOLA ▶

Tolosa Kup-eko bigarren asteburua, igarota

Denera 7 partida jokatu dituzte larunbatean eta igandean; hurrengoan, beste 10 partida

ERREDAKZIOA

Tolosa Kup-eko bigarren asteburua igaro da, eta hauek dira utzi dituen emaitzak: larunbateko partidei dagokionez, Ekaitz taldeak 3 eta 1 irabazi zuten Recambios Ibarren aurka; Igaratz 4 eta 3 gailendu zen Zierbo de Koz-en aurka; Como pollo sin cabeza eta Pub Txanpak bana berdindu zuten, eta Errekaldek 3 eta 1 irabazi zuten No somos nadie taldearen aurka.

Igandeko partiden emaitzak, bestalde, ondorengoak

izan ziren: I Strawberry taldeak 3 eta 2 irabazi zuen The Patxis-en aurka; Txotxeroak taldea 3 eta 1 gailendu zen Makalak taldearen aurka, eta, azkenik, Oargik eta Txikiteroak taldeak bina berdindu zuten. Bestalde, larunbateko Egunkaria aurrera eta URT taldeen artekoa eta igandeko Berrize saiatzea eta Asta Pistols taldeen arteko partida ez ziren jokatu, beraz, atzeratuta geratzen dira.

Hurrengo larunbatean eta igandean hurrengo 10 partidak jokatu dituzte.

Brontxillo

Berritze lanak egin ondoren
asteartetik aurrera zuekin gaude

Harategia eta Arrandegia

ALEGIA • San Juan kalea 49

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da Tolosaldean 4 orduz lan egiteko. Eskarmentuduna. Interesatuak deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Ile-apaintzailea. Tolosan ile-apaintzaile behar da. Esperientziarekin. Kontratu finkoa eta gizarte-segurantzak. Interesatuak dei

dezakete 625 70 50 59 telefono zenbakira.

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur lehorrak dago salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuak deitu 615 75 57 62 telefono zenbakira.

Garajea. Tolosa. Salmentan garaje itxia. Deitu 943 65 25 81 telefono zenbakira.

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Eztabaida. «Bullying-a zergatik ematen da? Azken urteetan ikastetxeetan eman diren bullying kasu batzuk ezagutzera eman dira. Ikasle batzuk tratu txarrak eta irainak jasotzen dituzte. Gure gurasoek jasaten zutenean bezalako erasoak al dira?».

ARETO FUTBOLA ▶

Garaipenarekin ekin dio Laskorainek denboraldi berriari

7 eta 3 irabazi zuen loar Kanpezu talde arabarraren aurka; Altunaren berragerpena eta Gonzalezen debuta izan ziren



Laskorain areto futbol taldea lehian, partida batean. HITZA


ERREDAKZIOA

Abuztuaren bukaeran hasi eta iragan ostegunean bukatu den aurrendenboraldi «luze, gogor eta mamitsuaren» ondoren, larunbatean ekin zion Laskorain ikastolako taldeak denboraldi berriari Usabalgo kiroldegian. Pasa den urtean Nazional B mailarako igoeraren txartela lortu zuen loar Kanpezu talde arabarra izan zuen aurkari, eta erabateko ezezaguna izaki, «errespetu osoz» jauzi ziren kantxara horitxoak. Dena den, tolosarrek 7 eta 3 garaitu zituzten arabarrak.

Norgehiagokaren hasiera erritmo gutxikoa suertatu zen, akatsik ez egiteko helburuarekin igaro zituzten lehenengo minutuak bi taldeek. Tolosarrek Yustosek eginiko gol bati esker aurre hartu zuten arren, berehala etorri zen erantzuna Kanpezuokoen area ertzetik jaurtitikato falta baten ostean. Lehenengo zatia amaitzeko 3 minutu gelditzen zirenean Saldiasek asmatutako «jokaldi bikain» batean penaltia adierazi zuten epaileek. Kapitainak berak, 6 metroetatik ez zuen barkatu. Atsedenaldira beraz, 2-1 etxekoen alde.

Bigarren zatiari ezin hobeto ekin zioten Egizabalen mutilek, Saldiasek, Gilek eta Ekhiak, beste gol banarekin aldeareagotu zuten eta kanpotarrek 5-2koa erdietsi izanagatik, «berehala iritsi zen arratsaldeko unerik pozgarri eta hunkigarriena». Izan ere, belauneko lesioa gainditu berri duen Altunak, 6-2-koa igo zuen Usabalgo elektronikora. Norgehiagoka erabakita geratu izanagatik, beste bi gol ikusi ahal izan ziren, eta 7-3-ko azken emaitzarekin amaitu zen partida. Altunaren berragerpenaz gain, Gonzalez atezain berriak bere debuta egin zuen, «lan bikaina betez».

Bestalde, Laskorainek, Joxe Martin taldeko lehendakari ohiari, eta Jone Urteaga lehendakari berriari eskeini nahi dio garaipena, proiektu honek suposatzen duen ahaleginen ardatz nagusien kontsiderazio moduan.



**MILIOI BAT
ARRAZOI
DUGU
GAUZAK
BESTEEK
EZ BEZALA
EGITEKO.**

Ez da logikoa, Dagoeneko jorratuta dauden bideez gainezka dago mundua, baina zuk ez diezu horiei jarraitzen. Europako herririk zaharrena gara, eta banda zabaleko konexio gehien duena. Ez da logikoa.

Ez ditugu gauzak beste guztiek bezala egiten. Baina, gaur egun, milioi bat pertsonaren baino gehiagoren konpainia gara. Horregatik, lanean jarraituko dugu, gauzak gutxienez zuk espero bezala egiteko.

IBARRA ▶ FUTBOLA

Erraz irabazi zuen Ibarrek etxean, 6-1eko emaitzarekin

Bi garaipen eta berdinketa batekin hiru partida jokatu ditu honezkerok; taldeak balorazio positiboa egin du

ERREDAKZIOA

Igor Zabalo, Victor Silvak, Lander Camiok, Unai Labacak eta Ion Ander Karrerak ekin zioten pasa den larunbatean Belbietan Gasteizko taldearen aurka jokaturako partidari. Sinoe Sanzek, Loitzun Sanzek, Ustaritz Errondosorok eta Aritz Otaegik ere jokatu zuten, ordea. Emaitza sei eta batekoa etxekoan alde.

Norgehiagokaren hasieraz gozotik, Ibarra izan zen «jokoa buru» eta halaxe jarraitu zuen partida bukatu arte ere,

buru izaten, alegia. Ibarrek uneoro baloia menderatzeaz gain, ondo mugitzen zutela adierazi du Jose Manuel Tobias prentsa arduradunak. Hala ere, aurkariaren zelaian finkatzeko lanetan zailtasunak izan zituzten.

Hori horrela izanik ere, lehenengo gola etorri zen zortzigarren minutuan. Zelai erdian lapurturiko baloiari esker, Unai Labacak atearen bigarren makilera erdiratu eta Loitzunek lehen gola markatu zuen arazorik gabe. Labakaren golak ez zuten norgehiagokaren fisio-

mia aldatu. Tarteka definizio falta bazuen ere, Ibarrek zuten agintea.

Markaketa arazo baten ondorioz etorri zen partidako bigarren gola. Izan ere, 13. minutua betetzen ari zela talde aurkariak partida berdindu zuen. Ibarra saiatu bazen ere, atsendaldira joaterako, 1-1 zioen taulak.

Bigarren zatia beste kontu bat izan zen. Igor Zabaloren sake luzea Unai Labacak hegalean jaso eta atearen bigarren-zurtoinera boteaz Lander Camiok 2-1eko gola egin zuen.

Partidua hautsi zuen gola izan zen hura, une horretatik aurrera Ibarrek zikloi itxura hartu baitzuen aurkariaren aurrean. Modu horretan, zelai erditik aurrera egin ezinik geratu ziren gasteiztarrek.

Partida amaitzeko sei minutu falta zirela, alboko saka burutu zuten ibarrek. Beste behin ere, Unai Labacak jaurtiketa satin baten bitartez Camiok baloia pasa eta honek gol bihurtu zuen, 3-1eko ezarriaz. Ordura arteko markagailua eskasa izaki, lasaitasuna ekarri zuen taldera hirugarren golak.

4-1eko minutu bat beranduago etorri zen Camioren jaurtiketa indartsuaren eskuetik. Gasteizko taldeak atezaina jokalarik gisa jarri bazuen ere, Camio eta Karreraren arteko kontraerasoari esker 5-1eko ezarri zuten. Partiduko azken gola, berriz, Unai Labacak sartu zuen lapurtutako baloiarekin.

Norgehiagoka erraza, beraz, Ibarrek taldearentzat. Gogoratu, datorren partidari David Prados jokoa ariko dela azkenean.

TOLOSA ▶

Hegats igeriketan izen-ematea zabalik da

Hegats igeriketa taldeak ekin dio dagoneko denboraldi berriari. Ikastaroa 12 urtetik aurrerako haurrei zuzendurik dago eta adinaren araberrako taldeetan osatzen da. Interesatuak ager daitezela kiroldegira 19:00etan eta galde dezatela Ibai edo Gorkataz.

GAZTELU ▶

Bihar, osasunari buruzko jardunaldia

Uli Mankomunitateak antolatu eta Kutxako ikasgelak sustatuta, osasunari buruzko jardunaldien hurrengo saioa burutuko dute bihar 17:00etan herriko elkartearen Landuko den gaia, *Osasun Zentroa: adineko pertsonentzako erabilera gida* izango da. Hitzaldia jubilatuei zuzendurik dago.

hitza

lagunen txokoa

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da



Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

IBARRA ▶

Ohi baino jende gutxiago Lasturren

M.SOROA

Urtero bezala aurten ere Lasturren izan dira Ibarrek hainbat gazte. Modu honetara, Ibarrek Garagardo Azokako antolatzaileek bertan laguntzen ibili ziren herritar guztiei esker eman nahi izan dizkiete, bertara gonbidatuz. Egun pasa «zoragarria» izan arren, ordea, beste urteetan baino jende gutxiago animatu da irteerara, autobus bakarra izan baitzen. Antolatzaileek adierazi dutenaren arabera, «ez da erraza horrelako egun bat prestatzea». Hala ere, hurrengo urtean «hobetzen» saiaturiko direla esan dute.

iragarki laburrak ▶

LANA

Mantenimendua. Lorezainak, elektrikiariak, arotzak... behar dira erakunde publikoetarako. 943 31 37 82.
Anbulatorioak. Honako arloetarako pertsonala behar dute: laborategiak, erizaindegia, administrariak, mantenimendua. 943 31 37 82.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Oreandain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarano autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egotza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

AMEZKETA ▶ MENDIA

Perdido mendian marka berria

Torla herritik abiatu, Pirinioetako mendi ezagunenetakoa igo eta Torlara itzultzen marka ezarri du Iker karrera amezketarrak: 4 ordu eta 48 minutu

EKAITZ AGIRRE - BERRIA

Errozkazalea da Iker Karrera amezketarra. Mendian ibiltzea eta korrika egitea ditu zaletasun, eta horiek uztartuta ari da azken urteotan mendiko lasterketetan. Pirinioak gustuko ditu, Ordesa ingurua, batez ere. Osagai horiek guztiek bat egin zuten iragan uztailearen 30ean; Iker Karrera egun hori aukeratu zuen Perdido mendiko erronkari ekiteko. «Ez nekien halako igoera azkarrak egiteko joera zegoenik, baina aurreko markaren jabearekin topo egin nuen lasterketa batean—Jesus Sanchez; 5 ordu eta 29 minutuan zuen marka—, eta hark animatuta saiatu nintzen». Saiatu ez ezik, lortu ere bai.

Uztailearen 30a, goizeko seiak, Torla (1.060). Tenperatura freskoa, «aproposa korrika egiteko». Guardia zibilek txanda aldaketa zuten ordu horretan. Haiek arduratzen dira, Perdido igoera azkarrenak balioa izan dezan, marka homologatzeaz. Banderatxoa hartu eta ziztu bizian abiatu zen herritik. Lehenengo ordu erdia ilunpetan egitea zekarren ordu horretan irteak. Hori dela eta, errepedez egin zuen Ordesako aparkalekura bitarteko igoera. «Giroa aproposa zen; azkar igo nuen lehenengo zatia». Cola del Caballo ur-jauzi ezagunera arteko zatia Arkaitz Zamakona lagunarekin egin zuen, korrika. Torlatik abiatuta, ordu eta 20 minutuan iritsi zen hara. «Aurreko erreferen-
zientziak hobetzen ari nintzen».



Iker Karrera amezketarra, Perdido mendiko tontorrean. IKER KARRERA

Ur-jauziaren inguruan minutu inguruko atseden hartu eta iltzeak dauden bidetik igo zen Gorizeko aterpetxera: ordu eta 53 minutu. Aterpetxeko zaindariak bazuen Karrera marka ahaleginaren berri, eta jatekoa eta edatekoa prest zituen bera iristerako. Indarrak hartzeko atseden laburra egin, «bi edo hiru minutu baino ez», eta gora abiatu zen Iker Karrera; zati batzuetan korrika, beste batzuetan oinez. Tontorrera bidean zeuden mendizaleen animoak izan zituen amezketarrak, tar-
tean euskal selekzioko beste kide batzuen. Bi ordu eta 50 minutuko igoeraren ondoren iritsi zen Perdido mendiaren

puntu gorenera (3.355). Argazkia atera, banderatxoa eskutik zuela, noski, eta lasterka beherako bidea hartu zuen, igotako bide beretik.

Aintzira izoztutik behera ari zela izan zuen eguneko ezustea. «Despiste txiki bat izan nuen; begiak bidetik apartatu, oreka galdu eta erori egin nintzen», azaldu du Karrera. Erorikoa, ordea, ez zuen jarraitzeko oztipo izan. Cola de Caballo parean Arkaitz Zamakona zuen zain eta biek elkarrekin osatu zuten Torla arteko azken zatia, «orain bai basotik, errepedetik baino erosoago». Torlara aurreko marka 42 minutuan ontzeko moduan iritsi zen, one-
nari emanda. Lau mila metrotik

gorako desnibela eta 40 kilometro inguruko ibilbidea guztira.

Saiatzearen garrantzia

Herrira iritsi bezain pronto, polizia etxera bisita. «Zalantzak eta ahoz aho zabaltzen diren usteak saihesteko modu bat da. Norbaitek ahalegina egin nahi badu haietako behar die», argitu du Karrera. Irten aurretik eman zioten banderatxoa entregatu, eta argazkia entregatzeko hitza eman. Amezketarraren markak du orain balioa. Geroztik ez omen da beste inor ahalegindu. «Mendizale asko dago denbora hori hobetu dezakeena».

Dena dela, azken horrek ez du arduratzen: «Halako erronkin ez dut, besterik gabe, markak ontzea bilatzen, saiatzeari baizik, neure buruari erronkak jartzea. Hobetu edo ez faktore askoren baitan egon daiteke, baina ahalegintzea nire esku». Izan ere, belaunaldi gazteen artean horren falta sumatzen du Karrera. «Ez du balio hamar urte barru atzera begiratu eta 'garai hartan marka bat edo bestea egiteko sasoia nuen' esateak. Nire filosofia hori da: gai naizela uste badut, saiatzeari. Hobetu edo ez, ahalegindu», argitu du mendizaleak.

Filosofia horri jarraiki beste-lako erronketan zaildutakoa da Karrera. Amezketan jaitoa, baxerri giroan hazi eta hezi zen, Txindokiren magalean. «Txikitatik gorputza eta burua ingurune horretara egokitu zaizkit, gustura nabil mendian», dio. Mendizalea eta korrikalaria izaki, «errepedeko lasterketan parte hartzen nuen», bi elementu horiek uztartzen hasi zen mendiko lasterketen loraldiarekin. Berehala jabetu zen zein bide hartu behar zuen: «Azken bi edo hiru urteetan ari naiz mendiko lasterketak prestatzen».

Egun batean, 24 orduren buruan, Gipuzkoako mendi ezagunenetakoa, Txindoki, zenbaitetan igo jarri zion erronka bere buruari. Hamaika aldiz jo zuen Euskal Herriko Cervino txikiaren punta. «Ez naiz ibilbide eta erronka laburretara egokitzen; diesela naiz, ez gasolina. Distantzia eta denbora luzeok lanak gustatzen zaizkit, iraupen luzeok», azaldu du amezketarrak. Erronka berriak baditu buruan dantzan; mendia eta korrika uztartuta, noski.



Torlara iritsita, guardia zibil bati azalpenak ematen. IKER KARRERA

UEU MARKESKOAKO ESKAINTZA (2006ko udazkena)	
• Web 2.0. Urriaren 16tik 30era (jardueren eta astelehenetan), 16:30etatik 19:30etara.	www.ueu.org
• Edizio digitala euskarazko kazetaritzan. Urriaren 19tik azaroaren 6ra (ostegunetan), 15:00etatik 18:00etara.	
• Arte-prozesuen erabilera tratamendu terapeutikoetan Urriaren 21etik azaroaren 4ra (larunbatetan), 9:00etatik 14:00etara.	
• Berlindin arteko bortxakeria eskoletan: bullying-a Urriaren 21etik azaroaren 4ra (larunbatetan), 9:00etatik 14:00etara.	
• Dementziak eta alzheimerra: zer dira eta zer egin? Azaroaren 11tik 25era (larunbatetan), 9:00etatik 14:00etara.	
• Emakumearen gorputza eta erotika. Urriaren 17tik azaroaren 14ra (ostegunetan), 16:30etatik 19:30etara.	
• Arte-prozesuen erabilera tratamendu terapeutikoetan Urriaren 21etik azaroaren 4ra (larunbatetan), 9:00etatik 14:00etara.	
 UEUren Ikastetxe Nagusia Isasi-Markeskua jauregia Otaola hiribidea, 1. 20600 EIBAR Tel.: 943 82 14 26 markeskoea@ueu.org	
Udako Euskal Unibertsitatea	



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko urriaren 3a, asteartea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

19

hotzera

16

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

902 82 02 01

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berrobi. 0 eta 3 urte arteko haurrentzat, jolas, dantza eta kantu ikastaroa, urriaren 17, 18, 24 eta 25ean (egunean 2 ordu). Izen-ematea, urriaren 11 baino lehen. 943 69 37 31 (Olga).

Tolosa. Bihar, ezker abertzaleak deituta, batzordea 19:30ean, Kultur Etxean. Gaia: Egungo egoera politikoa eta aurrerantzean landuko den ildo.

Tolosa. KZguneko urriko ikastaroetan izen-ematea zabalik. 943 65 37 20 zerbakian.

Tolosa. Bihartik hilaren 16ra arte, 17:00etatik 20:00etara, Tolosako Ekinbide Etxeak Emeterio Arrese kaleko 2. zerbakian duen bulegoan salgai jarriko dira 38. Abesbatza Lehiaketarako abonoak.

Hilaren 19tik aurrera sarrera solteak jarriko dira salgai.

Tolosaldea. Mihiluze saiorako lehiakide bila dabilta. Izena emateko edo publiko gisa joateko, 943 01 17 80 zerbakira deitu edo Mihiluze@eitb.com helbidera idatzi.

Tolosaldea. Urriaren 8an, AHTren aurkako AHT Gelditu! elkarlanak manifestaziorako deia egin du Legutien. Bertara joateko autobusa antolatu dute. Txartelak 8 eurotan eros daitezke Tolosako Rakun eta Meskalen, Ibarako Atarin eta Zubiaurren, Villabonako Gaztetxean, Zizurkilgo Aurreran, Adunako Uztartzan eta Anoetako Itzulien.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leizta. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Etxebeite, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

IRRATIA

Txolarre irrati

(107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri*.
22:00-23:00. *Street*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Aizkardiren irteera, Behe Nafarroatik barrena

VILLABONA ▶ Igande honetan irteera antolatu du Aizkardi elkarteak, Behe Nafarroatik barrena. Donibane Garazitik abiatu eta Zarara joango dira. Hortik Gatarreko gailurrera (761 m) helduko dira. Bilgotzako mendixkatik jarraituko dute ibilbidea eta Haltzara (782 m.) helduko dira. Bertan 920 metrora dagoen Salbatore ermita ikusiko

dute. Burdinkuruzeta portua igoko dute, Okabe-runtz (1466 m). Amaitzeko Iratiko Etxolara jaitziko dira. Izena eman nahi duenak, 943 69 44 58 telefono zerbakira dei dezake Joxanengatik galde-tuz edo Aizkardi elkartearen bertan egin dezake, urriaren 6a baino lehen. Irteera 07:00etan izango da Olaederra kiroldegitik. HITZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ibiur Etxeberria Arteaga (Amezketeta). Zorionak, ia urtebete ttikiel.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza LEIZTAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.

Zerbakia. 242.a (2006eko irailaren 22a).

Orrialdeak. 24.

Tirada. 5.000 ale.

Gai nagusia. Alfonbra gorria errepide bazterrean.

Beste gaiak. Euskara enpresetan, Tolosa 750 urte, Graffiti-gaiak, Bide Ertzean taldea, Aitzol euskaltegia, Oihana Amundarainen tourra Kubatik.

Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.

▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.
▶ 943 65 50 04.
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.

Zerbakia. 263.a (2005eko irailaren 22a).

Orrialdeak. 28.

Tirada. 2.500 ale.

Gai nagusia. Oihartzun luzeko irrintzia: Irrintzi elkarte (1981 - 2006).

Beste gaiak. Asteasuko azoka berezia, Amasa-Villabonan, Aritza kultur taldearen eskaintza; Zizurkilgo euskal naziotasunaren aldeko festa; Andoainen, Ardobixeren liburua.

Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
▶ Kale Berria 47, 3. esk.
▶ 943 69 64 50

▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com